

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren kasuan, kostu finkorik ez dugu edukiko, bazkideetako batek garajea jarriko baitu, eta beste batek erramintak, ekoizpen fase osoa betetzeko. Aldakorretan, aldiz, lehengaiak erostekoak izango dira batzuk, eskala ekonomiakoak gainera. Hau da, gehiago produzitzea erabakiko bagenu merkeago lortzerik edukiko genuke. Honez gain, argindarra izango litzateke edukiko genukeen beste gastu aldakorra, lanorduen araberakoa izango zen eta. Webguneari buruz, enpresentzat bereziki zuzendutako eta doakoa den web-orri programa bat ezagutzen dugu, internet bidezkoa. Hortaz, honek ere ez liguke inolako kosturik sortuko. Azkenik, telefonoaren ordainketa erabileraren araberakoa izango litzateke, eta erosleek ez lukete ordainketarik egin beharko, gure kontura joango baita deien kostu osoa.